

G7-aren alternatiba




JUAN MARI ARREGI

Munduko ekonomiaren ordezkariak, G7ko herrialdeek osaturik, Biarritz inbaditu zuten kostu handiko segurtasun gerriko ikusgarri eta gogaikarri batekin. Kapitalismoaren eta multinazionalen ordezkariak dira. Zer ote da haientzako 30 milioi euroko faktura bat, Biarritzeko egonaldiagatik? Beraien ondorioekin kapitalismoaren “aurpegi humanoa” erakutsi nahi dute, ezkutatuz egiazko helburua: gobernu guztiak kontrolatzea espolioaren, suntsiketaren eta prekarizazioaren politika mantentzeko, gutxi batzuen mesedetan.

Elkartasun borroketan hainbeste urtetako esperientzia izanik, Euskal Herriak erakutsi du gure kostaldeak izandako inbasio kapitalista honen kontra dagoela. Kontragailurrarekin eta desobedientzia zibilarekin erantzun du. Baina horrez gain, ikusarazi du G7ak inposatu nahi duen gizarte eredu kapitalista, prekario, militarista, heteropatriarkal, xenofobo, nuklear eta antiekologiko horren alternatiba ere baduela.

Milaka herritarrek argi utzi zuten G7arekiko aurkakotasuna, eta batez ere gizarte berri bat eraikitzeko borondatea erakutsi zuten, erdigunean pertsonak eta herriak izango dituen politikez osatua: justizia soziala, berdintasuna, solidaritatea, migratzaile ekonomiko eta sozialen integrazioa, feminismo antipatriarkala, benetako ekologismoa, herrien burujabetza... Munduaren suntsiketaren kontra eta dibertsitatearen alde daude; demokrazia erreala, herrien arteko elkartasuna eta mugen abolizioa eskatzen dute. Kapitalismoaren amarruak eta haren fronte mediatikoak gainditzea ez da erraza izaten, baina orain badakigu posible dela G7aren alternatiba izango den beste gizarte bat eraikitzea. ●



Krisi ekonomikoaren hurrengo portua

URKO APAOLAZA AVILA

Abuztuko beroan, oporraldian harrapatu ditu Europako agintari politiko ugari, kezkatzeko moduko albiste ekonomikoak: Alemania atzeraldian sartzeko zorian dago. “Saihestu dezakegu, neurri egokiak hartuz gero”, esan zuen Peter Altmier ekonomia ministro alemaniarak Saarbrückeko udako etxetik. Baina egun batzuk geroago Bundesbankak berak jo zuen alarma. Alemaniako BPGa %0,1 jaitsi zen bigarren hiruhilekoan eta seguruenik hurrengo hiruhilekoa ere antzera joango da; beraz, teknikoki atzeraldian sartuko litzateke Europako lokomotora deitzen dena. Alemaniako geldialdia Txina eta AEBen arteko gerra komertzialak eta Brexit gogor baten beldurak eragin du, esportazioari emanak baitaude –industria ekoizpenaren datuak ere azken hamarkadako txarrenak izan dira–.

Halako albisteak irakurtzen baditugu paisaia ekonomiko osoari begiratuz, ikusiko dugu gero eta gertuago dagoela 2007an hasitako krisi ekonomikoaren hurrengo portua: Erresuma Batuko BPGa %0,2 jaitsi da, Italiakoa zeron geratu, eskaintza gehiegizkoa da, prezioak eta inflazioa apenas igo dira, interes tasek barre gurea ematen dute... Krisiaren hurrengo enbata “ez du motibo bakar batek” sortzen, azaldu du Niño Becerra ekonomialari ospetsuak Twitterrez.

Gurean ere abuztuak ekarri dizkigu laino beltz batzuk, kasik oharkabean igaro direnak: zerga bilketa uste baino txikiagoa izan da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan –ez da iritsi lehendik nahikoa zuhurrak ziren aurreikuspenetara–, eta etxe salmentak behera egin du Hego Euskal Herrian, bost urteko hazkundearen ondoren.

Aspalditik ari dira analistak alokairuaren burbuilaz ohartarazten, baita finantza kasino globalaren arriskuaz eta mundu mailako zorpetze erraldoiaz ere. Baina Alemaniak ez du zor askorik, eta aukera izango luke gastu publikoaren bidez ekonomia pizteko –austeritatearen ortodoxia hautsiko al du?– eta denbora irabazteko. Arazoa zor asko pilatuta dutenek izango dute, eta Espainiako eta Frantziako estatuena –BPGaren %98 eta %99, hurrenez hurren– ez da nolanahikoa.

Albiste huts bat bestearen atzetik irakurtzea, errepideko bihurgune bat bestearen atzetik kontatzea bezala da, jabetu gabe jadanik mendia eta portua igotzen ari garela. ●